

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluak ikastaroaren gaineko informazio saioa eskainiko du irailaren 29an, Aretxabaletan

2016/09/19

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluak (EKT) informazio saioa antolatu du ikastaroaren ezaugarrien berri emateko. Informazio saioa egingo da irailaren 29an, ostegunez, 18:00etan, Aretxabaletako campusean (A.1.1 gelan). Saioa irekia da baina, interesatuek aldeztu aurretik izena eman beharko dute Interneten (eman izena hemen). Aditu tituluaren matrikula irekita dago urriaren 14a arte.

Irailaren 29ko informazio zaioan azalduko dituzte adituaren seigarren edizioak izango dituen berezitasunak: egutegi eta ordutegiak, ikastaroan jorratuko dituzten gaiak, hizlari moduan etorriko diren aditu eta arituak ezaugarriak...

Oraingo edizioan ere, ikasle eta hizlariak hilean behin elkartuko dira, hileko asteburu batean. Ikastaroaren egutegiari dagokionez, eskolak hasiko dira 2016ko urriaren 22an eta amaituko dira 2017ko ekainaren 18an (saioen data zehatzak kontsultatzeko). Saioak hasiko dira larunbatean 09:00an eta bukatuko dira igandean, 13:30ean.

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren gaineko informazio gehiago:

- **Posta elektronikoa:** kulturgintza@mondragon.edu
- **EKTren webgunea:** www.mondragon.edu/ekt
- [Oraingo edizioaren eskuorria.](#)
- [Izena emateko irailaren 29ko informazio saioan.](#)



Aurreko edizio bateko ikasleak jai batean.